

HISTORIA ETA IRAKASKUNTZA

1. HISTORIA ETA TALDEA

Gaiari ekitearren, onena egitate historikoak banakoaren, taldearen eta, batik bat, estatuen baitan osotasunean pizten duen interesa (objektiboa eta subjektiboa) azaltzea izango da, direla estatuok nazio baten gauzatzea, direla inposizio inperialistaren emaitza. Mundu osoan onartzen da historia erreferente erabakigarria dela taldearen kohesioan. Ildo horretan, hiru historialariren iritzia emango dut, J. Appleby, L. Hunt eta M. Jacob amerikarrena: “Memoria mota guztiek (ikusgarriek eta ikusezinek) norbere nortasunari eusten dioten neurri berean, historian bizi den nazio memoriak talde nortasuna ematen dio herriari, elkartze hutsa elkartasun bihurtzen du eta estatuaren autoritate hertsagarria zilegitzen du”. Herriaren pertzepzioa, memoria historikoa banakako memoriarekiko paraleloa da. Historiarik gabeko herriak amnesia du. Gainera, historia da talde jakin bati kohesioa ematen dion nortasunaren oinarria, eta estatuko antolakundeak banakoa edo talde bat hertsatzea zilegitu ere egin dezake. G. Noiriel frantses historialariak *Sur la crise de l’histoire* lanean bestela dioenez, unibertsitatearen eta, bereziki, Historia sailen funtsezko eginkizuna estatuaren zilegitasuna justifikatzea da, nazio ideologia eginez.

Aforismo zaharrak dioenez, bere historia ahazten duen herria errepikatuzera kondenatuta dago; nik, berriz, historiari uko egiten dion herria desagertzera kondenatuta dagoela diot. Areago, esango nuke nazio edo nazio izan nahi duen estatu oro historian oinarritu dela, **hala etxean, nola kanpoan**. Inguruko estatu guztietan egiazta daiteke hori, baina deigarria da Erdialdeko eta Ekialdeko Europan sortu berri diren estatuak historia aipatzea: Sobietar Batasunak inposatutako historiaren ikuspegiari uko egin diote; harekin bat, nazioa gaingitu eta internazionalismoa ezarri behar zen baina, egiaz, Ekialdeko Europako historia interpretatu zuen, tsarismoaren garaian Errusia handian sortu ziren planteamenduetan oinarrituta. Gaur egun, Europako estatu handi guztiak euren memoria historikoa berrosatzen tematuta daude, behatzaile kritikoek onartzeko moduko bilakatu nahian, mantentzen duten nazio proiektua itxurazkoa izan dadin kanpora eta nazioko kideak eroso egon daitezen nazioaren baitan.

Historiaren erabilgarritasunaren aurkako eragozpenak pertzepzio akatsen emaitza dira, baina ez dute aurrez esandakoa baliogabetzen. Batzuek diotenez, iraganak ez du atzerabiderik; oraina, eta geroa, da interesgarria, zalantzarik gabe. Herodotok sortu zuen “istorie” terminoa, eta “azalpena” esan nahi du: bere munduko errealtatearen azalpena nahi zuen. Eragozpena alferrikakoa da, historiak ez duelako eginkizun hori gaingitu nahi; aitzitik, errealtatea eta gizadiaren eta giza jokabidearen bilakaera baldintzatzen duten faktoreak ulertzen laguntzen du. Historiak horiek deskribatu nahi ditu, eta historiari uko egitea karbonoa bizitzako osagai delako errealtateari jaramon ez egitea da. Are jarrera arruntagoaren ondorioz, historia arbuiatu ere egiten da, uneko errealtatea dena delako. Mendebaldeko kulturak europarraren adimen nagusitasuna gailentzen du, emakumezkoak ez du gizonetzkoak duen gaitasun berbera, musulmana ez da gai erlijioari dagokion garrantzia emateko... Oraingoz, utz dezagun alde batera ikuspegi sinplifikatzaile hori.

Egun, jakintza den aldetik, historia zalantzan jartzen da, historiaren eraikuntzaren subjektibotasuna nabarmendu baita. Akusazio postmodernista da hori, gizaki garaikideak errealtatearen gainean izan uste izan duen segurtasunaren eta kontrolaren aurkakoa. Egia esan, bere ikuspegia gizadi osoari inposatzeko prest dagoen Mendebaldekoaren berezko jarrera da hori; ilustratuarena baina, batez ere, Iraultza Burgesak iraun zuzen bitartean Europa osoan gailendu zen iraultzaile burgesarena; gauzak eta gizakiak arrazoiaren bidez bere tokian jarri nahi zituen gizakiarena. Hari esker askatu zen banakoa feudalismoak eta

estamentuetan banatutako gizarteak ezartzen zizkieten lokarrietatik eta, aurrerantzean, ahalmen guztia erakutsi zuen, bere mesedetan lehenik eta gizarte osoaren mesedetan gero. Bien bitartean, gizartea, nazioa bere patuaren jabe egin zen, Bossueten arabera, jainkozko eskubideko monarkari edo, Hobbesekin bat, beharrezko tiranoari boterea lapurtu ziolako. Liberalismo politikoak eta ekonomikoak nazioak eta estatuak lagundu zituen, eta estatuok jarraitutasunez egin zuten aurrera. Zenbat eta askatasun handiagoa, orduan eta arrakasta handiagoa nazioartean.

Alta, burgesiaren bazterrekoek zalantzan jarri zuten gizarte burges zoriontsuaren irudi hori. Ikusi zutenez, talde txiki batek bakarrik ateratzen zuen etekina liberalismoak ekarritako garapen ekonomikotik eta, bitartean, behartsuen masa mugarik gabe handitzen zen, pilatu behar kapitalistak miseria ekarri ziolako. Politikaren alorrean, hauteskunde sistema murriztaileei errealitatea aberatsen, nagusien mesedetan desitxuratzea leporatu zitzaien. Industriaren arloko langileria gero eta indartsuagoa zen, eta gizarte eta ekonomia arloko erreformak eskatzen zituen. Azkenean, mugimendu sozialista sortu zen, burgesia zaurian ukitu nahian. Marxismoak eta anarkismoak langile gehienak bildu zituzten. Euren proposamena errealitatea atzekoz aurrera aldatzea zen: sistema burgesa suntsitu eta klaserik gabeko gizartea ezartzea. Indarkeriazko iraultza da berehalako etorkizuna, boterea langileen esku utzi eta berdintasunezko gizartea ezartze aldera; horretarako, epe ertainean estatua desagertzea ere ikusten da aurrez.

Orain dela gutxi arte, liberalismoak eta sozialismoak bete dute gizarte eta politika arloko esparrua Europan eta Mendebaldean. Hasiara batean etsai amorratuak baziren ere, joera sozialista batek liberalismo politikoaren oinarritzko planteamenduak onartu eta uko egin zion iraultzari. Beste bat, komunista, iraultza prozesua aurrera eramaten ahalegindu zen, mundu burgesa krisialdian murgildu zen-eta XX. mendeko lehenengo hamarkadetan. Ahaleginak Errusiako Inperioan (ordutik aurrera, Sobietar Batasunean) izan zuen eragina eta, ondoren, Erdialdeko eta Ekialdeko Europan, Txinan barrena Asiako zati handi batean eta Afrikako eta Amerikako herrialde batzuetan. Alta, komunismoak, sozialismo errealek ez zituen bere helburuak lortu, bereziki, oso autoritarioa izan zelako klasetan banatutako gizartea berdintasunezko prozesu bihurtzeko prozesuan eta ez zuelako gizarte sozialistak berez omen zituen abantailak eskaintzerik izan.

Liberalismoa eta sozialismoa Mendebaldeko kulturaren bi emaitza dira, Europako gizakiak giza garapenaren prozesua kontrolatzeko gaitasuna duela uste izatearen ondorio. Gainera, errealitate materialaren eta sozialaren analisi objektiboaren fruitutzat jotzen dira. Liberalismoak errealitatearen analisi arrazionalaren ondorioztat du bere burua, Ilustrazioa arte teologiaren eta jaiotzaz boteretsu zirenen arbitrariotasunaren mendean zegoenarena. Sozialismoak (areago, aldaera marxistak) ikuskera liberala kritikatu nahi zuen, askatasuna gizabanakoari eman uste ziolako baina, egiaz, beste boteretsu batzuen (ekoizteko bideen jabeen) esku uzten zuelako ahulei baldintza bidegabeak ezarri eta menderakuntza mota berri hori onartu ez beste aukerarik eskaintzea. Liberalismoaren eta sozialismoaren arteko gatazka areagotu egin zen urteak igaro ahala, baina estatu liberalak izan ziren nagusi Lehen Mundu Gerrara arte. Barnera, nazioa inposatu zieten herritarrei, zein nazio nahiago zuten aukeratzeko bide eman gabe; kanpora, estatu horiek guztiak etsai izan ziren eta lur eta ekonomia aldetik nagusi izateko lehiatu ziren. Jarrera horren ondorioz, subiranotasuna inposatu zieten mundu osoko herriei eta lurrei.

Lehen Mundu Gerraren amaieran jaio zen mundu sozialistari dagokionez, Lurreko gizaki eta herri guztien elkartasuna aldarrikatu zuen. Egia esan, sozialismo erreala Sobietar Batasunean bakarrik erroto zen eta, handik, beste inguru batzuetara hedatzen saiatu zen; halere, Bigarren Mundu Gerrara arte ez zen nabarmen garatu baina, orduan, gizadiaren heren bat hartu zuen. Klaserik gabeko gizartea ezartzeko ahalegina Sobietar Batasunaren mendean egon zen beti. Bertan, Stalinekin banakoen, taldeen eta herrien sentiberatasunaz gaindi klaserik gabeko gizartea ekarriko zuen prozesuaren bere ikuspegia inposatu zuen. Sobietar Batasuneko esperientzia imitatu zuten herrialde gehienetako jarraitzaileek kopiatu egin bazituzten ere, erabili zituen metodo hertsagarriak argi eta garbi arbuiatu ziren askotan, nahiz eta arrakasta material ukaezina lortu zuten. Bestalde, Stalinekin bere egin zuen estatu burgesetako ikuspegi nazionalista, eta talde nazional ugariaren itzaropena erdeinatu zuen.

Egun historia zalantzan jartzea argitu ditugun Mendebaldeko pentsamenduaren bi eredu horiek (liberalismoa eta sozialismoa) izan nahi dutena ez diren kontzientziaren ondorio da. Sozialismo erreala porrot egin du argi eta garbi, baina liberalismoak pizten du eszeptizismo gehien. Izan ere, gizarteko sektore oligarkikoen interesei bakarrik erantzuten diela erakusten ari da lotsagabeki, eta sektoreok kapitala neurrigabeki pilatzen hasi dira, gizadiaren zatirik handienaren miseria ustiatzeko prest; gainera, gizarte aurreratuetako talderik handienekin ere ez dute begirunerik, aurreko hamarkadetan “ongizate estatua” delakoko garapen ekonomikoan barneratu zituzten arren. Historiaren krisialdi honetan, funtsezko eginkizuna du iraultza burgesak ekarri duena zalantzan jartzeak; hain zuzen ere, iraultza burgesa Frantzia hasi zen XVIII. mendean amaieran, eta Mendebaldeko Europa osora hedatu zen XIX. mendean barrena. Aro garaikidean zehar ziurtzat eman da norbere askatasunaren eta, banakoen multzoa den aldetik estatuaren subiranotasuna hartzen duenez gero, nazioaren askatasunaren balioak taxutu dituztela Europako estatu aurreratuetako eta antzeko estatuak gizartea eta egitura politikoak, baina Frantzia bertan jarri da gehien zalantzan ikuspegi hori, eta bertan leporatu zaie gehien jarraitzaileei subjektibo izatea; hain zuzen ere, Frantzia: Frantziako nazioa ikusteko modu bakarra Frantzia iraultzaile eta, batez ere, errepublikanoa izan da azken bi mendeetan. Errepublikako balioek askatasuna adierazten dute eta, horregatik, gaur egun, sektore askok ez dituzte ondare eztabaiaezintzat hartzen. Edonola ere, Frantzia aurretik existitzen zen, eta Frantziako nazioa ez dago eztabaidan. Dirudienez, diskurtso historikoa erlatibizatu egiten da, baina betiereko Frantzia indartu.

Gu geu eztabaidan hasten garenean, inola ere ez dugu alde batera utzi behar ikuspegi hori. Argi dago errealitate osoa ikusteari buruzko ezagutza sistema osoaz eztabaida daitekeela. Europako intelektualen artean gizartearen bilakaeraren inguruan ikuspegi liberalari eta marxistari gailendu zaien eszeptizismo horrek, ordea, ez du inolako eraginik egungo estatuak eta nazioak taxutzeko eskemetan, eta ontzat ematen jarraitzen dira. Edonola ere, Espainiako intelektualek historiaren krisialdiaren eta nazio auziaren inguruan izan duten jarrera aztertzea behartuta gaude geu. Zoritxarrez, Espainiako kulturak biziki baldintzatzen du gure arteko eztabaida intelektuala. Errealitatearen gure ikuspegia biziki baldintzatzen duen halabeharrezko erreferente bilakatu da, Espainiako intelektualen mailak oso txikia izaten jarraitzen duen arren: ez da oso sortzailea, eta Mendebaldeko intelektualen diskurtsoa zabaldu besterik ez du egiten, modari jarraiki eta gehiegi sakondu gabe baina. Hainbestearinokoa da hori guztia, Espainiako diskurtsoak era berean erabiltzen ditu eskema liberal zaharrak eta pentsamendu marxistaren korroakak, baita eskema postmodernistak ere: gehiegi beretu gabe, kanpotik etorri diren eta berriki diruditen baina ozta-ozta hartu diren planteamenduak bailiran. Hala ere, garrantzitsuen Espainiako intelektualen eta euren ordezkarien joera da, euskal nazio ikuspegiak historia dela-eta ematen dizkion argudioak zalantzan jartzekoa. Postmodernismoak landutako argudioak eta Espainiako historiografia eskolarik zaharkituenak ere era berean erabiltzen dira. Indartsuagoa dela dakienaren zalapartaz zanpatu nahia besterik ez da, guztiz oportunistak eta batere zintzoak ez den jarrera.

Euskal nazioaren errealitatea aldarrikatzen dugunon ustez, memoria historikoa behar dugu gure nortasunaren eta talde elkartasunaren euskarri, eta horren aurkako eragozpenak gure etsai dialektiko eta politikoen oportunismo hutsaren ondorio baino ez dira. Era berean, gure historiari buruz kontakizun zuzena eta objektibotzat har daitekeena egin daitekeela uste dugu, nazioarteko zientzialariek onartzen dituzten elementuetan oinarritzen baikara. Elementu horiekin bat, gure nazio taldeak ditu Europako gizarte osoko sustrairik sakonenak, ez da egia Mendebaldeko Europa osoa menderatu zuten germaniarrek nazio hau mendeetan hartu zutenik eta izan zen euskal estaturik (Nafarroa), euskal herri osoa bildu zuena Erdi Aroko zatirik handiengan. Espainiak eta Frantziak konkistatu egin bazuten ere, zientzialari horiek eurek gure nazioak iraun egin duela onartzen dute, Europako kultura modernoko eta garaikideko gizonik jakintsu eta ospetsuenek (besteak beste, Oihenartek, Voltairek eta Alexander Humboldt) herri eta nazio gisa ditugun berezitasunak etengabe aipatu izanak adierazten duenez. Era berean, gure herriak denboran zehar Espainiaren eta Frantziaren menderakuntzari aurre egin diola onartzen da, orain arte, Espainiari aurre eginez eta erresistentzia politikoa etengabe

mantenduz. Errealitate ukaezina da hori, eta nazio auzia jorratzen duen liburu esanguratsu orok aipatzen du.

Ahalegin handiagoa egin beharko genuke hausnarketa egiteko, eta oraindik ere barneratuta ditugun aurreiritziak gainditzen ahalegindu historiak gure pentsamoldean bete beharko lukeen eginkizuna erabakitzerakoan. Ezinbestekoa da egungo pentsamenduak esparru guztietan zer eskaintzen digun kontuz aztertzea, pentsamendu hori ez delako xaloa eta, gehiegitan, gure etsaien bulkada sakonei erantzuten dielako, oharkabe bada ere, gure gaineko nagusitasuna justifikatu nahian.

2. EDUKI HISTORIKOA

Uste dut aurreko atalean argi utzi dudala historiak giza pentsamoldearen taxutzean duen garrantzia. Banakoak kide den taldearen ingurunea (nazioa) hautematen duen moduaren oinarria dela nabarmendu dut. Litekeena da ikuspegi hori murriztegia izatea, gero eta handiagoa da-eta honi buruzko kontzientzia: banakoaren balioak gizadi osoaren ondare direlako dira balio. Baieztapen hori zuzena da baina, edonola ere, desideratum hutsa da, eta euren burua etsai eta areriotzat duten estatuetakako erakundeek eta talde handiek ere ez dute hartzen euren gain. Ezin ahaztuzkoa da hori, giza balioen unibertsaltasunean sinetsaraziko digun jarrera xaloan eroriko ez bagara. Izan ere, unibertsaltasun hori ez da erreala; aitzitik, gogo altruisten baitan dago gehienetan, baina hain onargarriak eta interesatuak ez diren kausen ikurra ere bada. Ez dago gauza barregarriagorik bere burua “munduko herritartzat” duenaren jarrera baino. Oro har, pertsona horiek uste sendoa dute euren baitan euren balioekin eta ikuspegiekin bat egiten ez duena itxia dela eta tolerantziarik ez duela.

Horregatik, uste dugu bi alderdi horiei erantzungo dieten planteamenduak behar ditugula: banakoa kide den gizarte eta talde historikoari buruzko ezagutza eta, aldi berean, giza talde guztien bilakaeraren azterketa. Izan ere, garrantzitsua da gizadiaren bilakaeraren ikuspegi alde batera ez uztea, haren garapenarekin elkar eragin duten faktore fisikoak eta sozialak eta pairatu behar izan dituen gatazkak (taldeen eta gizartearen baitakoak eta taldeen artekoak) aztertuz. Gainera, gizakiek arazoei aurre egin dieten modua eta arazook onerako edo txarrerako ebatzi dituzten modua ere aztertu beharko genuke. Ildo horretan, nazio historiaren bilakaera ere aztertu beharko litzateke, baina arreta berariaz jarri beharko litzateke, nazio historiaren helburua kideak zuzenean bat egiten duen taldea ulertzea den neurrian eta talde horren balioak eta ondarea biltzen dituen neurrian. Beste kultura batzuetako balioekiko lotura, baina, askoz ere lasaiagoa da eta, oro har, haiei buruzko ezagutzaren helburua ez da bat egitea, are gutxiago urrunekoak badira, hain hurbilekoa ez den giza errealitatea ulertzea baizik.

Edukiak direla-eta, curriculumak giza errealitatearen ikuspegi orokorra kontuan hartuko duen osoko ikuspegi eman beharko lioke ikasleari, eta ingurune fisikoari eta gizadiaren bilakaerari buruzko alderdiak ere irakatsi. Egia esan, egun, oso urrun ditugu helburu hori lortzeko aukerak. Zailtasunak askotarikoak dira, baina historia unibertsalean oraindik nagusi diren Mendebaldeko planteamenduen nagusitasuna ez da gutxienekoa. Planteamendu horiek gizadiaren inguruan ematen duten ikuspegiaren arabera, gizakiak esperientzien (hala porrot egin dutenen, nola arrakasta izan dutenen) bidea zein norabidetan egin duen, Mendebaldeko kulturak adierazpen maila gorena eta giza heldutasun osoa lortu du horri esker; izan ere, antza denez, Mendebaldeko gizakia bakarrik izan da gai gizakiaren ezaugarriak erradikalena aurkitu eta azaleratzeko: arrazoia. Mendebaldeko kulturaren nagusitasun horren ondorioz, kultura eta zibilizazio guztiak Europan ontzat ematen diren parametroen arabera epaitu dira, eta Europakoa ez denaren izaera eta gogoia ezbaian jarri da.

Metodoari dagokionez, ezagutza historikoak bi jakintza arloren (Geografiaren eta Historiaren artean) banatzeko egokitasuna azter genezake. Eztabaida epistemologikoetan hasi gabe, bi jakintza arloetako ezagutzak bakartzat hartu beharko lirateke, irakaskuntza arloan bederen. Badirudi Historia egokiagoa dela prozesu diakronikoak eta, neurri batean, politikoak aztertzeko, eta Geografia, berriz, faktore fisikoak ikuspegi sinkronikotik aztertzeko. Halere, Historiaren bitartez ikasten diren errealitateak zibilizatu edo hiritartzea

lortu duten kulturekin bat etorri ohi dira. Giza kultura asko eta asko, ordea, prozesu horretatik kanpo geratu dira, edo berandu batu zaizkio, ikuspuntu teknikitik eta militarretik indartsuagoak diren kulturek inposatutako metodo traumatikoen bitartez batzuetan. Horregatik, primitibotzat jotzen diren kulturak hobeto analizatzen dira metodo geografiko tradizionalaren bidez, euren itxura estatikoagoa zaigunez gero. Azken batean, hausnarketa honen helburua giza bilakaeraren ikuspegi jakin bat zalantzan jartzea da, alde materialetik arrakasta handiagoa izan duten kulturak balioesten direlako ikuspegi horrekin bat.

Egia esan, historia planteamendu tradizionalen ikuspuntutik aztertzea gatazkatsua da, baina baita egungotzat jotzen diren planteamenduen ikuspegitik ere; izan ere, egungo planteamendu horiek aurrekoen aldaera baino ez dira. Niri neuri, gutxienez, egun historia irakasten den modua guztiz ezeztatzea gustatuko litzaidake. Gainera, historia aztertzeko modu berriak bi gauza izango lituzke kontuan. Batetik, gizadiaren bilakaeraren ikuspegia gizaki gisa hezten hasi berri diren banakoei eman behar zaie, eta ezagutzaren lehenengo aztarnak oso-oso biziki finkatzen dira haiengan; litekeena da aztarna horiek izatea gizabanakoak errealitatea hautemango duen moduaren oinarria. Bestetik, aurrekoaren ildoan, funtsezkoa iruditzen zait historia aztertzeko moduak gizakiaren arazo nagusiak ulertzen lagun dezan, historiaren irakaskuntzak tradizioz izan dituen aurreiritziak alde batera utziz. Historia ideologiaren bitartekorik osatuena den aldetik (batik bat, estatu eta kulturarik indartsuenena), zibilizazio jakin bat edo bestea nagusi dela ondorioztatzen aukera desagerrarazi beharko litzateke; halaber, faktore fisikoek eta materialek gizakiaren bilakaeran izan duten garrantzi erabakigarria nabarmendu beharko litzateke eta, gainera, aurrerapena gizakiak ingurunea ulertu eta erronka jakin batzuei erantzuteko gaitasunaren emaitzat hartu beharko litzateke. Ikuspegi hori ez da alde teknikitik eta materialetik bakarrik jorratu behar, sozialetik ere baizik, aurrerapena gizakien arteko harreman berriei erantzuten dieten eta gatazkak gainditzen dituzten gizabanakoen eta taldeen jarrera den neurrian. Ildo horretan, gatazka bera errealitate historiko eta unean uneko errealitate gisa analizatzea planteamendu berriaren funtsezko oinarria izango da.

Nolanahi ere, berriz ere nabarmendu nahi dut historiaren irakaskuntzaren gakoa ez dela metodologia edo irakasteko bitartekoak arrazionalizatze kontu hutsa. Azkenean, bi alderdi horiek estatuak jakintza arlo honi egokitu dioten eginkizunarekin lotuta daude: euren boterea zilegitzearekin. Iraganean, historia Elizak erabili zuen, gizakia gidatu eta Jainkoaren probidentzia erakustearren. Estatuak (adibidez, Espainiak), berriz, naziotasuna justifikatu nahi izan dute. Nire ustez, alabaina, historiak gure euskal nazioa (Nafarroa) eratzen prozesua eta, mendean hartu duten arren, askatasuna lortzea herriaren helburua izan denez gero beti, nazio horrek bizirik jarraitu izana azaltzeko balio behar du. Edonola ere, kanpora begira, historiak gizadiaren bilakaeran esku hartu duten faktoreak eta gizadia itotzen duten gatazken zioak ulertzen lagundu beharko liguken, gizakien arteko elkartasuna lortze aldera.

Nire ustez, alor hau irakaskuntzako hiru aldiak kontuan hartuta antolatuta beharko litzateke:

- Haur hezkuntzako aldiak irizpide deskriptiboei eman beharko lieke lehentasuna, horiek baitatoz bat ikasleen adimen mailarekin. Tradizioz “metodo geografiko” izendatu denarekin bat etorriko litzateke baina, egia esan, ikuspegi osoagoa eman beharko luke giza errealitatearen gainean. Egungo giza errealitateetatik abiatuko litzateke edo, gutxienez, garaikideetatik. Aukeratzen diren kulturetako ingurune fisikoa aztertu beharko luke, bertako klimaren ezaugarriak eta esparru fisikoa oro har, eta kokalekua eta banaketa. Bigarrenik, dagokion kulturako bizimodua analizatuko luke, bilakaera prozesua barne. Planteamendu horrek eredu arketipikoak azter litzake, elkarren artean antzekoak diren ereduak eta bestelakoak diren beste eredu batzuk alderatzearen. Bizimoduak eta bizimoduaren aldaerak azaldu beharko lirateke, zibilizazio guztiek euren kasa edo kanpoko pizgarriei esker bizi dituzten giza bilakaeraren faseak adierazten baitituzte. Gizakia bere kontrako inguruneetara egokitzen gaitasuna eta aldeko bihurtzeko ahalegina nabarmenduko litzateke aldi

guztian zehar, gaitasun intelektualarenaz gain, gizarte antolamenduaren talde izaeraren ondorio ere badirenak.

- Derrigorrezko bigarren hezkuntzako aldia ikuspegi diakronikoagoa, hau da, historikoagoa ematen ahaleginduko litzateke, eta giza bilakaeraren analisiak gatazka gizartearen baitako eta erkidegoen arteko harremanak finkatu dituen faktorea izan dela nabarmendu beharko luke. Edonola ere, ikasleari giza errealitatea ulertzen aurrera egiten lagunduko liokeen elementu berria litzateke. Aldi honetan, abstrakzio gaitasuna sustatu beharra dago, gizakiak funtsean antzekoak direla ulertzen laguntzeko, euren borondatek kanpo dauden eta kontrolatzen zailak diren bizirik irauteko beharrek mugiarazten dituztela. Nolanahi ere, beharrezkoa da nabarmentzea gizakia soziala dela, eta kideekin harremanetan egoteko beharra bizirik irautekoa bezain hil edo bizikoa dela. Gai hau antolatze aldera, beharrezkoa iruditzen zait Mendebaldeak historia antolatzeo erabiltzen duen eskema klasiko eta tradizionala gainditzea; harekin bat, historia Antzinako Historiaren, Erdi Aroaren, Historia Modernoaren eta Historia Garaikidearen artean banatzen zen, eta geroago Historiaurrea erantsi zitzaion. Neuk, berriz, honako eskema hau proposatuko nuke:
 - HOMINIZAZIOA: primateen eta egungo espeziaren arteko aroaren analisia.
 - FASE HARRAPARIA: gizakia guztiz naturaren mendean dagoen aroa.
 - IRAULTZA NEOLITIKOA: gizakia ekoizten eta natur ingurunea kontrolatu eta eraldatzen has dadin dakarren prozesua.
 - KALE IRAULTZA: kontinente guztietan sortu diren kaleko kulturen analisia, sortzen diren ingurune fisikoa nabarmendu eta euren gizarte eta kultur arloko ezaugarriak deskribatzen dituena.
 - INPERIOAK ETA KULTURAK: Aro honek gizadiaren historiaren analisia egin beharko luke, lehen inperio handietatik hasi –Afrikan, Asian edo Ameriketara sortu direla ere– eta mundu moderno edo garaikidera arte. Seguru asko, hori da eskema tradizionalarekiko eten nagusia, baina badu abantailarik. Lehenik eta behin, Mendebaldeko historiaren bilakaera eta munduko beste leku batzuetako historiaren bilakaera bereizten dituen desitxuratzeko akademikoa gainditzen du; izan ere, Greziako eta Erromako historia bereizi egiten da gaur egun, eta Antzinako Klasikoko Historia eman. Bigarrenik, merezi duten garrantzia ematen die Asiako kulturei (batik bat, Txinakoari eta Indiakoari) eta aintzat hartzen ditu Ameriketako eta Afrikako kaleko kulturen lorpenak. Hirugarrenik, ikuspegi kronologikoa eraldatzen du, aro hau fase neolitikoa gertatu zen aldi berari baitagokio berez. Gainera, teknologiaren esparruan, uste dut Aro Modernoaren amaierako kulturen maila ez zela oso bestelakoa aro honen hasierako mailaren aldean, eta gauza bera esango nuke pentsamoldeari dagokionez.
 - INDUSTRIALIZAZIOA: Historia garaikideko aldi esanguratsua da, ekoizteko teknikak bilakatu eta, ondorioz, Lurraren itxura aldatu egin zen-eta alde materialetik eta giza aldetik. Prozesu honetan, gizakiaren behaketa eta analisi gaitasunetik kanpo dauden eraldaketa izugarriak gertatu ziren nahiko denbora tarte motzetan. Aldaketen erritmo horrek txunditu egiten zuen, eta horrek eragin izugarria izan zuen industrializazioaren lehen faseetan bizi zirenean, XIX. mendean eta XX. mendearen lehenengo hamarkadetan. Are eragin handiagoa du egungo belaunaldiengan, globalizazioa jazo baita. Historiaren bilakaera aurrez ikusteko gaitasun oro galdu dugula dirudi.
- Curriculumeko hirugarren aldiari dagokionez, Batxilergoari, badirudi gure esparrutik kanpo dagoela ez delako derrigorrezkoa, baina egon

badago. Historiaren irakaskuntza planteatu berri dudan eskemari jarraitu beharko litzaioke, baina helburu handinahiagoak izan beharko lituzke. Hezkuntzako aldi hau goi mailako irakaskuntzara bideratzen dela ikusirik, interesgarria litzateke horretarako prestatzea. Alde horretatik, dagokion heldutasuna lortzen lagunduko dioten lan metodoak eman beharko litzaizkioke ikasleari, historiaren jakintzan sakonduz, egungo munduan erabakiak hartu edo, besterik gabe, jarrerak aukeratzera eragina duten arazoak hobeto ulertzen dela gogoan izanik betiere.

3. PROPOSAMENA

Historia irakasten egin dudan ibilbidea amaitzean den honetan, curriculum ezin hobe prestatzeko moduan nagoela sentitzen dut. Bi baldintza besterik ez zaizkit falta: plangintzaren bidea berriro egiten hasteko gogo eta nire planteamenduak gauzatzeko giza baliabideak (eta baliabide materialak). Onartu beharra dut, alta, nire planteamendua hausnarketaren emaitza dela, porrotak edo frustrazioak ekarritako hausnarketarena. Duela hiru hamarkada, orduan Batxilergoa hartzen zuten lehenengo programazioen plangintza egin behar izan nuenean, historiografiako eskarmenturik aurreratuena nuela uste nuen. Fakultatean ikasi nuen onena antolatu nahi nuen, hala edukien esparruan, nola metodoen esparruan. Laster konturatu nintzen, ordea, historiaren plangintza orokorraren barneko gabeziez eta planteamendu, metodologia eta material arloko zailtasunez historia ikasleei hurbiltzeko.

Espainiako Estatuak XIX. mendeko planteamendu historiografiko zaharrei eutsi zien eta, orduan, premia handia zegoen Europak lortutako abantaila berdintzeko. Historia eta Geografia zerrenda hutsak ziren, eta oroimen arlokoak besterik ez ziren. 1960ko hamarkadara arte, ikerkuntza historikoak azaletik deskribatu zituen gai politikoak eta, gizarte eta ekonomia arloan eta kultur arloan ikerketarik ez zegoela-eta, sintesia eta dibulgazio liburuak ere antzekoak ziren. Laster piztu zen irakurleei historiaren ikuspegi berria emateko interesa, Europako herrialdeetan zaharra zena ordurako. Emaitza penagarria izan zen, laster batean egindako azterketa sozioekonomikoak estrapolatu zirelako, baita espekulatu ere. Goizegi iritsi nahi izan zen sintesira, oinarritzko analisiak egin gabe.

Antzeko zerbait gertatu zen eskolako liburuekin. Historia beste modu batean, frankismoko testuek berezkoa zuten ikuspegi probidentzialistatik kanpo landu nahiaren ondorioz, planteamendu berriak zituzten proposatzen testu asko argitaratu ziren. Helburua historiaren alderdi didaktikoa eta pedagogikoa berritzea zen baina, oro har, ahaleginek porrot egin zuten erabat. Azkarregi sartu ziren eduki berriak (hala geografia arlokoak, nola historia arlokoak), metodologiaren esparruan ez zelako hausnarketa nahikoa egin eta batere berritzaileak ez zirelako. Ekonomia eta soziologia arloko edukiak sartzeak irakaskuntzaren itxura aldatu zuen antza baina, egia esan, gogaikarriak, ulergaitzak eta errepikakorrak izan ziren beti. Historia irakastea nekeza zen, eta Historia irakaslearen irudipena frustrazioa zen.

Laster ulertu nuen programa ofizialek ezartzen zituzten planteamenduak sakonki aldatu beharra, Nafarroako nazioaren historia ez baitzuten kontuan hartzen. Akats guztiak zuzentzearen, programazioa aldatzea bururatu zitzaidan, iruditu zitzaidalako edukiek eta metodoek ez zirelako gure ikasleen beharrei erantzuten. Programazioaren ardatz Euskal Herriaren bilakaera historikoa ezartzea pentsatu nuen, beste ikuspegi batetik betiere, eta azalpenaren gunetzat, lurraldearen jendeztatzea. Alderdi horren analisisa ingurune soziala eta politikoa aztertzeke aitzakia zen. Metodoa dela-eta, berriz, unitate edo gai bakoitza irakaslearen azalpenaz eta ikasleei gai horretan sakontzeko bide emango zieten bitarteko bibliografikoen eta materialen aurkezpenaz hasten zen. Azalpenaren ostean, ikasleek talde lana prestatu eta egin behar zuten, mapak, grafikoak, argazkiak eta ikus-entzunezko bestelako materiala barne, eta, unitatearen amaieran, aztertutako gaiarekin zerikusia zuten interes historikoko guneetara irtenaldiak egiten ziren.

Esperientzia positiboa izan zen, norbere historia aztertzeko bide eman eta metodo berritzaileak sustatzen baitzuten. Luzarora, ostera, muga dezente nabarmendu zituen. Orduan, hezkuntzaren erreforma jazo zen. Ondorioz, Hezkuntzaren Espainiako arduradun politikoei hezkuntzaren koordinatuei buruzko eztabaida sustatu zuten. Egia esan, ez zen borondate politikorik auzian sakontzeko, irakaskuntzaren, oro har, eta hezkuntza arloaren administrazioaren itxura penagarria apaintzeko baizik, botere publikoen erantzukizuna ziren aldetik. Hasiara batetik, hezkuntzaren arazoa irakasleen ardura zela transmititu zitzaion gizarteari, ez zelako orduko eskakizunetara egokitzeko gai. Gainera, ikasgelan eskarmenturik ez zuen profesional mota jakin bati eta teoriarari espekulatzaileri agindu zitzairen irakaskuntza berria diseinatzeko, eta haiek gizartearen irudipena (alegia, arazoa irakasleen egokitasun falta zela) beretu zuten. Ondorioz, birgaikuntza nabarmendu zuten erreformaren bitartekorik egokientzat.

Erreformari esker, sakonki eztabaidatu zen irakaskuntzaren izaerari eta baldintzei buruz, lehenengo eta bigarren hezkuntzako irakasleen artean harreman sendoa sortu zuten ingurune oso zabaletan hainbatetan, baina goi mailako karguek egindako proposamenak espekulazio huts bihurtu ziren eta inoiz ez ziren espero izatekoak ziren curriculum eredu bilakatu. Historiari dagokionez, beste garai batzuetako planteamenduetarantz lerratu zen, elkartasun balioak Espainiako Estatuaren errealitatea eztabaidaezina zela arrazoitzen zuen ikuspuntutik nabarmentzen zirenean batik bat. Finean, zaila zen gaiari Euskal Herriaren, Nafarroaren nazio ikuspegitik heldzea, eta are zailagoa gizadia osotasuntzat hartzen zuen historiaren ikuskera berritik; izan ere, eduki historikoak bere horretan utzi eta ez ziren berriro antolatu, ezinbestekoa bazen ere; onartu beharra dago alderdi hori legediak xedatu zuela eta LOGSEk berak ezarri zituela hezkuntzako aldi bakoitzari zegozkion edukiak. Ez zitzairen heldu curriculumaren beste alderdi batzuei ere; ildo horretan, ez zen irakasteko metodologiari ikusi aurrez eta, ondorioz, historia buruz ikasi beharreko gaia izan zedin baldintzatzen zuten ohitura txar zaharrek bere horretan jarraitu zuten.

Urte hauetan guztietan izan ditudan esperientzietatik eta hausnarketetatik historia irakasteko moduaren ikuskera funtsean aldatu beharra ondorioztatu nuen, hala edukien antolamenduaren aldetik, nola aplikatu beharreko metodoen aldetik. Edukiak antolatze moduari dagokionez, uste dut aurreko atalean egin dudana proposamenak historia arloko euskal curriculumak aplikatu behar dituen eskemak argi eta garbi adierazten dituela. Euskal Herriaren historiari buruzko atalak berariaz ez finkatzea ez da inolako arazoa, uste dudalako bilakaera historikoaren fase bakoitzak herriaren historia behar bezainbat aipa dezakeela. Metodoei dagokienez, aldiz, aldaketak erabatekoagoa izan behar duela uste dut.

Historia irakasteko zailtasun nagusia edukien abstraktutasuna da, helburua giza bilakaeraren prozesuak azaltzea bada batez ere, historia kontakizun entretenigarri batera mugatzea izan ordez. Historiak ikasgelara ihes egiten du, konkretutasuna eta ikusizkoa irakaskuntzaren ezinbesteko bitartekoak diren hezkuntzako maila hauetan hain zuzen ere. Buruz ikasi behar eta oso eztabaidagarriak diren deskripzio tradizionalak gain, historiaren irakaskuntzaren bitarteko bakarrak filmina ez oso adierazgarriak eta, berrikiago, elementu grafikoaren erreproduktzioa azalpen egokiez osatzen ez zuten bideoak izan dira. Hitz batean, historiaren irakaskuntzak ez ditu beste jakintza arlo batzuetako "laborategiak" izan, irakasleek irakaskuntza teorikoa gauzatze praktikoaren bitartez osatzeko. Azken finean, historia ez da ikasgelan sartu orain arte.

Garrantzizkoa iruditzen zait alderdi hori nabarmendu beharra, egun historiaren irakaskuntza era erabakigarrian aldatzeko aukera dagoela uste baitut, irakasleek ikusizko baliabideak dituztela-eta egitate historikoak eta giroa irudikatze izan dituzten muga tradizionalak gainditzeko. Diodana hobeto ulertzeko, historiaren irakaskuntza, funtsean, iraganean errealitate konkretua izan duten egitateetan eta datuetan oinarritzen dela izan behar da gogoan, baina baita prozesu historikoak eta haren kontzeptualizazioak egitateen zerrendatze hutsa gainditzeko dutela ere; izan ere, ikasleari prozesuaren beraren dinamika ulertzen laguntzen dioten abstrakzio ahaleginaren osagai dira. Orain gutxi arte, egitate historikoa irudikatze aukerak haien kokalekuak argazkien bitartez irudikatze edo egitateok laminen, margolanen eta bestelako artelanen bitartez berregitera mugatu dira, elementu grafikoetara. Egun, baina, azalpena ikusizko etengabeko elementuen bidez osa

daiteke, eta elementu horiek azalpenaren gunerik erakargarriena bihur daitezke. Adibidez, PowerPoint sistemari esker, unitate didaktikoak dinamikoki antola daitezke. Lehenengo gidoia prestatu eta, ondoren, edukiak argazkien, grabatuen, mapen eta, ahal dela, muntaia antzeztuen bidez eta egitate historikoak birsortuz azal litezke; hartara, ikasleei errealitate historikoa hurbildu eta berau ulerterraz eta asimilagarriagoa izango litzateke. Izan ere, PowerPoint sistema elementu malgua da kalitate handiko ikusizko elementuak irudikatu eta, aldi berean, eskemak, taulak eta sinopsiak (kontzeptuen mapak) azaltzeko, irakaslea bere erritmora behartu gabe: gelditu, atzeratu eta finkatu egin daiteke, interes didaktikoen arabera. Gainera, sistema honi esker, ikusizko elementuak ikaskuntza aktiboa jazotzeko beharrezko elementuekin konbina daitezke. Hain zuzen ere, ikusizko elementuen bitartez, garai historikoa hurbildu eta, hartara, argitu nahi den prozesuko errealitatean murgil daiteke. Edonola ere, ezinbestekoa da ikasleek analisi, abstrakzio eta gogoeta abileziak garatzeko sistema metodologikoak lantzea, finean, horixe delako historia irakastearen helburu nagusia.

Horixe da nire hausnarketa, baina argi eta garbi dut eztabaidatzeko proposamena besterik ez dudala egin, eta proposamen hau egin nahiko nukeena dela, eguneroko lanaren gauzatze erreala baino gehiago.